

INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA-FAMILIAK 2008ko 2. hiruhilekoa

Euskal AEko 15 urteko eta gehiagoko bi pertsonatik batek Internet erabiltzen du

15 - 24 urte bitarteko gazteen artean hamarretik bederatzik erabiltzen du

Eustaten datuen arabera, 2008ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 14 urtetik gorako 908.700 pertsonak erabili du Internet, hau da, Euskal AEn adin hori duten biztanleen % 49,3k erabili du. 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean % 4,1 gehitu da ehuneko hori.


Lurralde historikoka, Gipuzkoan gehitu da gehien erabiltzaile kopurua: % 7,5, 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Horrela, Interneteko erabiltzaile kopuru handiena dutenen artean laugarren geratu da % 50,2rekin. Araban % 5eko gehikuntza izan da; azken hiru hilabeteetan % 49,7 izan dira Interneten erabiltzaileak. Bizkaian % 1,9 gehitu da kopuru hori; guztira, beraz, % 48,7koa izan da Internet erabili duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen ehunekoa.

15-24 urte bitarteko hamar gaztetik bederatzik Internet erabiltzen du.

Adina kontuan hartuta, 15-24 urte bitarteko pertsonen % 91k Internet erabili du azken hiru hilabeteetan, 2007ko laugarren hiruhilekoan baino % 1,2 gutxiago. Azpimarratzekoa da 55-64 urte bitarteko erabiltzaile kopuruaren % 38ko gehikuntza, nahiz eta adin-tarte honetan orokorrean erabiltzaile gutxi izaten den (% 4,5).

Iturria: http://www.eustat.es/ele/ele0004700/not0004774_e.html
 (Prensa ohar berdín bat edo eguneratua aurkituko duzu)

15 urteko eta gehiagoko biztanleen bilakaera etxeetako IKT ekipamenduen eta hiruhilekoaren arabera. 1999-2008. %



Iturria: EUSTAT

1/ Eskura dituzun datuak hartuta, Euskal AEn 14 urte baino gehiago duten biztanleen gaineko zenbatespena egin dezakezu?

.....

.....

2/ Zenbat pertsona gehiagok erabili dute PCa 2002. urteaz gero?

.....

.....

3/ Zein urtetan gehitu da gehien sakelako telefona duen 14 urtetik gorako pertsona kopurua? Zenbat uste duzu gehitu dela kopuru hori?

.....

.....

4/ Kalkula ezazu 2007. urte amaieran sakelako telefona zuen pertsona kopuruaren eta Internet erabiltzen zuen pertsona kopuruaren arteko aldea.

.....

.....